

# KILI-KILI BARRIA

Kili-Kilitarrok, agur!

Jaio zanetik artuten izan dot Kili-Kili aldizkaria, bizkaieraz artu be. Badira, bada, ogeitazak urte daborduko. Aldizkariaren aldi barrion bizkaierazko argitalpenari eutsiko ei deutozue. Ondo be ondo derixtot orreri.

Leengo aldian, etxera eldu jatan aldi barriaren leenengo alea. Bizkaierazkoa, atan be. Aurrerantzean be alantxe izan daiten gura dot. Alandaze, arpidetzeari eutsi gura deutosot.

Baina,... beti bainaren batek edo bestek egon bear, aldizkariaren bizkaierera sano motela da. Ezegokia dala esango neuke. Bizkaierera ez da aditza bakarrik (deutso, dot, eban...), lexikoak zein jostekereak aditzak berak beste-ko garrantzi andia euki badauke. Eta or ikusten dot, argi eta garbi, moteltasuna, zuongan ez eze, bizkaieraz ezau-garriak erabili eta eurei eusteko. Beste euskalkien eta, batez be, batuaren interferentziak (ari izan, elur, aitortu, eromena, egitera joan, informazioa, izugarri, gutxienez, joera, esan daikegu, ekaitz, erraztu, jolastu,...) saiestuteko bideak eta neurriak artu bearko dozuez. Orretarako, garbi euki bear da bizkaierera zer dan.

Pentsau eizue, bizkaierera euskalki bizia dana eta ezau-garriak berezienak oraindikarren bizirik dituana. Zaarren bizkaiera gozoa eta aberatsa orriotara ekarrikeran, orduantxe izango dozue, izkuntza mailan, lorpenik andiena. Izkuntza biziaren mundua eta mundu ikuskerea orriotara aldatu. Zoritxarrez, ikastoletan eta eskoletan irakatsi eta irakasten ez dana edota irakasten jakin ez dakiena.

Bizkaierazko argitalpenari jagokonez, bearrezkotzat ikusten dot bera omogenoa izatea, au da, bizkaiera utsean agertutea, eta ez bizkaierera eta batua naastean agertutea. Egon be, batuerazko argitalpena egongo da eta.

Amaituteko, testu larregi agertutea gogaikarri izan leiteke ume eta gazte irakurleentzako. Ez ete da erakargarriagoa komiki geiago agertutea testu luzeak eta ugari baino? Alantxe dalakoa daukat.

Goian esandakoa aztertuko dozuelakoan, eskerrik asko eta urrengora arte.

## JAIOTZERA DOA

"Nazio aske bat jaiotzera doa" izan da irago barri diran auteskundeetan EHK erabilitako goiburuetariko bat. Ori entzun-ikusit, buruan azka egin eta, "txo, orrek ez jok bape ondo emoten, gero!", esan neban neure artean. Nire belarrietan ez eban ondo jo orrek, arrotz jo be. Izan be, "jaiotzera doa" ori kalko txar utsa da, espainolkadea.. Oker ez banago espaineraz "va a nacer", frantsesez "vaa naitre", inglesez "is going to be born", alemaneraz "wird gebo-

ren" esango leukee goiko a. Ez ete dogu esango guk euskaldunok "jaioko da", "jaio bear dau", `jaioteko dago" edo olangoren bat axe baiño? Baiezkoan nago. Sarri be sarri ikusten dira an-or alango okerrak, bein ta barrian. Alerdi politikoak be ez dira jokera negargarri orretatik ate lotu. Oraingoan bada, nire eritxi apalean, sano laprastada nabarmena egin dabe EHko euskera arduradunek. Ganera, Euskalerra osora zabaldu dabe mezu diglosiko ori. Euskeraz egitekotan euskeraz egin eta bera jagon, euskal-ñolik ez, arren.

Iniaki MARTIARTU

## "MENDIKO BASOAK ETA BARRUTIAK EZ DOZUZ ERREKO"

TAOISMOAREN 67N. AGINDUA

### URTE-URRENA

2000n. Urteko irailaren 21 n. egunean il zan Bilbao eta **Arruztar Jon Erramun** gure lankidea ta adiskidea.

Bere alargun Julia Olazar'eri, senideai ta adiskideai dei egiten dautsegu aurtengo irailaren 21 n. egunean Indautxu'ko parrokian bere alde ospatuko dan mezara

Aurretiaz, eskerrik asko

**EUSKERAZALEAK**



ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU